

SIRIAKO, HERRI-KIROLLEN ABOTSA

Arrate Irratiaren sintoniaren bidez, bere abotsa eguneroko sartzen da gure artera. Herri-kirolak komunikabidietan dakan hutsunia betetzia lortu dau bere eguneroko komentariuekin.

Bere etxeko egongelan basarriren kantu-papelak, Uztapideren bertso-liburuak, Gabriel Arestiren lanak, sukaldaritza ta kirolari buruzko liburu ugari, hainbet garaikur ta erretratukin tartekatzen dia. Mahai gaiñian, egunero irakurtzen ditzuan hiru periodikuak.

DROGETENITTURRI- UMETAN ES-KOLAK IKASTEKO AUKEARIK IZAN ZENDUAN?

Siriako- Ez larregirik. Eskerrak irakurtzia asko gustau jatala beti; horretxek salbau niñuen. Euskeraz zein erderaz, danetik. "La voz de España"n Basarrik egunero euskeraz artikulotxo bat idazten eban ta hantxe hartu neban euskeraz irakurtzeko afiziñu hau.



Pertsona gitxik ezagutuko dabe herri kirolen mundua Siriakok beste

D.- ZELAN HASI ZIÑAN ARRATE IRRATITIK BERBETAN?

S.- Txiripaz, oiñ dala 14 urte. Lehenengoz parte hartu nebanian ez neban berba eiñ, ez. Kantu zaharrak batzeko sai u baten kantau eiñ neban!.

Egunak beranduago herri-kirolekin hasi nintzan, gero Ermuko ta Eibarko plazetako prezixuak emoten jarraitxu neban ta ontzurarte inguruko herrixetako barrixak jaso ta emoten egon naz.

Estanko SOLOZABAL

Daniel Solozabal Areitio

Torrekua, z/g. • Tfnoa. 17 07 33
ERMUA



DROGETENITTURRI - EUSKAL BIRUSA

247 Posta Kutxa 48260 Ermua

Izen-abizenak Telefonoa

Helbidea

☐ ETXEAN JASO NAHI DUT ALDIZKARIA ☐ DROGETENITTURRIIN PARTE HARTU NAHIKO NUKE

☐ EUSKAL BIRUSAN PARTE HARTU NAHIKO NUKE, BESTE EKINTZA BATZUETAN

Norbait agurtu edo zoriondu, zeozer saldu, erosi edo aldatu, ala beste edozer esateko hementxe duzu zeure lekua:

D.- HERRI-KIROLAK ASKO DIA, EZ?

S.- Bai, sokatiria, harri jasotzia, txinga erutia, idi-probak, aizkolariak, kaskara batzia, zaldi-mando probak, asto probak, gizon probak, palanka jaurtzia, bola jaurtzia, bedar ebatia, adari topekia, oillar burrukia... Pelota ta arrauna berez be herri-kirolak dia, baiña zabalduauak dao.

D.- ZEIN DA GUSTOKOEN DOZUN KIROLA?

S.- Pelotia. Larogei urtetik honako pelotari guztixen historixia dakitx. Txirrindularitza be asko gustatzen jata. Probetan 40 urte pasauan nabil ta harri jasotze txapelketetan be gustora egoten naz. Hiru harri ipiñi, harri molde bakoitzakin bost bat miñututan eusten ikustia da dotoriena. Sokatirarako ostera, ez dakat afiziñu handirik. Luze juaten da. Tiraka ta tiraka, nork irabazi bihar daben as- mau eziñik.

D.- ZEIN DA ZURETZAT HERRI-KIROLARIRIK ONE-NA?

S.- Oin erretirauta dao, baiña koloreik barik Markiñako Lehoia. Idixekin proban, asto proban, gizon proban bere hurrengokuari, txapel- dun ordezkuari, alderik haundixena kendu dotsana bera izan da.

D.- ETORKIZUNIK IKUSTEN DOTSASU HERRI-KIROLARI?


S.- Bai, azken urtiotan be gora eñ dau. Direktiban zein dauan be asko esan gura dau. Bizkaikuan Isla lehen- dakari jarri zanetik, herri-kirolak bul- tzakada itxela hartu dau. Kanarias Japon ta Ameriketara zabaldu ditxu ta berton be indar haundixa emon dotsa.

D.- ZERK ERUATEN DAU JENTIA PROBE- TARA?

S.- Dima jokatzia. Afiziñuakin be asko juaten dia, baiña desafixuetan sari banaketarako ikuslegua gitxitu eitzen da beti.

D.- GANAUAK MALTRATU HAUNDIXA HARTZEN DABELA BEITXANTZEN JATA...

S.- Ez, gaur egunian ez. Federaziñua neurrixak hartuta dao. Epailliak atenziñua deitzen doutsie karreteruei akullua gogor sartu ezker. Bigarren abisura kalera doiaz!.



Siriakok denbora luzia daroia herri-kirolak segitxu ta zabaltzen.

Hillian behin biharra orain, babak ta lastua ta aterpe edarrian mantautau eukitzen dia ganauok. Baserrixetan ez dao oin idixekin goldaketara urtetzeko premiñarik ta probarako bakarrik pres- tautau ditzuez.

ESTIBALITZ GONZALEZ

OPTICA



J. CASADO

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antijuak
Eguzkirako Antijuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA

Harategia



M. LAZKANO

Bertoko Okelak


Geure Baserrian Hazitako Txalak

Geuk gizendutako abeltzantza

Merkatua, 36-37 zbk.k - Tfnoa. 17 05 84

Ermua

PRO



-ARRAINDEGIA -ITSASKIAK
-ARRAIN FRESKOAK ETA IZOZTUAK

ESKAINITZA BEREZIA
OSTIRALERO

Zubiaurre, 21 baxua
Tfnoa. 17 16 96 (despatxua)
" 17 24 33 (etxea)
Merkatu Plaza, Tfnoa. 17 41 59 ERMUA